

Penintsulako mendi garaienak, begiz jota



EXPRESS ESKAINTZAK!

LED JVC 43VD3300S TELEBISTA



239 €



- 4k UHD
- Smart TV
- HDR 10
- Dolby Digital
- T2-S2
- 3HDMI
- 2 USB
- USB Clonning

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Dendako prezioak. Produktuak agortu ari.

PINTURA ETA DEKORAZIOA
CORDON VILARCHAO
cordonvilarchao@telefonica.net
San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26
943 740 570 / 636 986 162

MEKANOSA
Errosario, 27-Elgoibar
943 740 284

- ✓ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ✓ MULTIKOPISTAK
- ✓ FOTOKOPIAGAILUAK
- ✓ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ✓ MARRAZKETA MATERIALA
- ✓ INFORMATIKA
- ✓ FAXA

Jon Aranao
Guillermo Torres

Elgoibar Albaitaritza

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel: 943 740 704 - 639 047 337
Auzolanerik ostirero: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
Lanrabiak: 11:00 - 13:00

Isapaindegi zerbitzua daukagu.
Datu ordu hartzeak.

Bueltan da ELGOIBARKO IZARRAREN

TONBOLA

1.000 erregalu baino gehiago...

Aurreko urteetan
TONBOLAK izan duen estimazioak
bultzatuta, **abenduaren 24an, 11:00etatik aurrera**,
Elgoibarko Izarraren tonbola
jarriko dugu **Kalegoen plazan**.
Hasi gara opariak jasotzen! Eskerrik asko!



Realeko jokalarien
kamisetak



Eskularruak



Botilak



Alguillo & Alkimistak
musika cd-ak



Belaustegi jatetxean
dastatze menuak



"NUR"en
liburuak



"Elgoibar koloretan"
mahai-jokoak



Opari sorta



Giltzarrapoak



Txiskeroak



643 499 169

943 741 626

elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus

Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

barren@elgoibarkoizarra.eus

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Izaro Etxegibel, Jose Ramon Cabrera, Ane Kortaberria, Asier Guisasola, Maialen Sanchez, Lere Kerexeta, Nagore Cancio **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.700 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



facebook.com/barrenaldizkaria



twitter.com/barreneus



instagram.com/barrenaldizkaria



youtube.com/@Elgoibarrennet

Asier Guisasola Iñiguez

Portu, ubide eta bideetako ingeniaria

Lokatza, usainak eta kiratsa



**"Memoriaren zolan
betiko itsatsita geratuko zaigu
euren tankerakoen erruz
zabaldutako kiratsa"**

Gure bost zentzumenetan usaimenak dauka gauza, pertsona eta lekuez gogorazteko indar handiena. Plaza txikian ibiltzen ginen gaztetan jolasean. Muruamendiaraz gozotegiko lantegia bertako eraikin bateko beheko solairuan zegoen. Atea erdi zabalik zeukatenean, eskuz egindako pastel egin berrien usain goxo-goxoa dastatzen geratzen nintzen maiz. Nago, han piztu zela nire azukre eta opil goxoekiko grina.

Grina aitxixak zeukan, ehizarakoa. Errioxara askotan joaten zen. Gazte nintzela bizpahiru aldiz joanda nago berarekin galeperretara. Txoritxo horien bila, eskopeta hartuta eta txakurrarekin, gariz landatutako lursailetan barrera ibili behar izaten da. Paraje horiek sikuak eta zereal usainekoak izaten dira. Gaztelako edota Errioxako lurretan berriro usaintzen dudak bakoitzean aitxitxa Ladis nire ondo-ondoan egoten da.

Gure etxe ondo-ondoan Deba erreka dago. Behin bakarrik ibili izan naiz erreka horretan barrera oinez. Ez dut gogoratzen zein urtetako San Bartolome jaietan jaitsi nintzen. Herriko festetan ohitura zen errekatik moztarotuta joatea kuadrilakoekin. Ez ginen izango lehenak jaisten. Lokatz eta ur azpiko lurra zapaltuta eta mugituta, zikinkeria, hezetan eta likits kiratsa gaur balitz bezala ditut gogoan. Batek daki zer nolako sedimentuak egon zitezkeen han, baina egun horretan, hainbeste gazte bertatik pasatu ostean, perfume kirats eskas hura buruan sartuta geratu zitzaidan.

Lurrin horren tankerakoa nabaritu omen da Valentzian. Uholdeen ostean bertara joan den boluntario bizkaitar batek hori idatzi du X sare sozilean. Testu hau idazten ari naizen egunean joan ziren Espainako presidente Sanchez, Valentziako Generalitateko lehendakari Mazon eta Felipe eta Letizia errege-erreginak uholdeek eragindako triskantzak ikustera. Lokatza, hitz zatarrak eta biraoak besterik ez zituzten jaso. Seguruenik jaun-andre txit goren horiek hitzak eta ikusitakoak ahaztu egingo zaizkie. Gainerakooi, ordea, memoriaren zolan betiko itsatsita geratuko zaigu euren tankerakoen erruz zabaldutako kiratsa.

DANA

Dana eraman dau. DANAK dana eraman dau. Geneukan dana eraman dau DANAK. Salbau ahal izan genduna eta salbau ezin izan zana. Amak urtietan zihar gorde izan zaguana eta aittak bihotzez bere seme-alabentzat zakana. Dana, maitte genduna, DANAK darama.

Gure etxia, altzarixak, erropia, gure ohia, liburuak, gure jana. Dana, harek nahi dabana; kotxia, mahaixa, bizittako iragana. Ordubete batian, urtietako lana. Gure etxe azpitan bakarrik bizi zan amama, bota giñon sokiari eusterik ez zakana. Bikotekidia, fabrikan lanian zaguana. Bere haurran billa irten zan ama, haura ere, etxera itzuliko ez dana.

DANAK dan-dana darama, eta ekarri? Bai, hondamendixan drama. Babesgabezixaren Ama zakan Valentziak begirale eta zaindari dama, baiña biharraren erreklamak, ordia, herrixa auzolanaz salbatzera darama.

Ainhua Garaikoetxea De Andrés

ELKAR MUGITUZ

153.640 pertsona dira Reale Arena, San Mames berria, Sadar, Mendizorrotza eta Jean Dauger estadioetan guztira sartzen direnak. Ariketaz ariketa, hiru edizioetan zenbaki hori gainditu du Euskaldiaren izen-emateak. 320.000 herritar baino gehiago gara Euskaraldian noizbait ahobizi edo belarriprest izan garenak. Kantitatea eta kalitatea, Euskaraldia sortu zenetik bi helburu horien arteko tentsioa bizi izan dugu. Jakin badakigu euskaltzale askok lehen edizioan izena eman eta hurrengotan izena eman gabe parte hartu zutela. Kalitatea berriz, txapa janztean eta euskaldunak euskaldunari euskaraz egitean datza.

Jendartea mobilizatzea gero eta zailagoa omen da. Euskaraldiak apustua igotzen du, ez baitu eskatzen ekintza puntual baten aldekoasuna edo kontrakoasuna adieraztea bakarrik: txapa jantzita, egoera ez erosoetan erabilera areagotzeko eta hizkuntza praktikak eraldatzeko jokabidea hartzea baizik. 11 egun horiek modu neketsu edo alaitsu batean bizi daitezke. Egin dezagun bigarrenaren alde, antolatu ditzagun egun horietako ekimenak poztasunarekin, jantzi ditzagun txapak

konfiantzaz eta jolas dezagun hitzun zein herri gisa ahaldunduta.

Haizea kontra dugula ere sumatzen da beste hainbat egoeretan ere, hala nola, batzuk diote euskal-washing-a egiteko probesten dela, lankidetzeta publiko-soziala beti ez da erraza, hainbatetan herritarren ahaleginaren alboan erakundeen urrats ausartagoak beharko liritekeela... Gauzak horrela, Euskaraldia antolatzeko ahaleginak merezi ote du? Akabo? Kitto Euskaraldia betirako? Zer tresna-bide-modu geratuko litzaiguke jendartean masiboki hizkuntza ohituren gainean kontzientzia pizteko eta euskararen erabilera jauzi bat eragiteko?

Euskaraldia ez da perfektua eta ez da ahalgutziduna. Ez ote dizkiogu helburu handiegia eskatzen batzuetan. Euskaraldia behar dugu euskaldunok, euskarak eta herri honek. Inoiz baino gehiago eta inoiz baino indartsuago behar gaitu Euskaraldiak. Aurreko hiru edizioetan egindako ikerketetan aski probatuta dago Euskaraldia eraginkorra dela. Ariketa garaian erabilera igotzen da eta handik hiru hilabetera ere hizkuntza ohitura berriak mantentzen dira ehuneko garrantzitsu batean. Euskaraldia indartsua behar dugu euskararen erabilera erdigunean jartzen duelako. Kontzientzia linguistikoa pizten duelako, hizkuntza ohiturak auzitan jarriz. Euskaldun aktiboak ahalduntzen laguntzen duelako. Euskara ulertzen dutenak prestigiatzen eta motibatzen laguntzen duelako. Epe ertain-luzera eraginkorra delako. Nazio mailakoa eta masiboa izanik, batzen gaituen ekimena delako. Euskara agenda eta iritzi publikoaren lehen lerroan jartzen duelako.

Munduan ez da halako ekimenik inon eta inoiz antolatu. Hortaz, munduari erakutsi diezaiogun herri honetan dagoen grina, batasuna, irudimena eta indarra euskara biziberritzeko mugimenduan.

Hurrengo Euskaraldia 2025eko maiatzaren 15etik 25era izango da. Garaiz gabilta. Aukera ezin hobea dugu euskaltzaleok edizio kolosala egiteko, badaukagulako esperientzia, ausardia eta anbizioa. Euskaraldia elkar mugituz egingo dugu!

**Irati Iciar Madinabeitia,
Euskaltzaleen Topaguneko lehendakaria
eta Oskar Zapata Solano, Euskaltzaleen
Topaguneko Nafarroako zuzendaria.**



Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus



943 744 112




688 655 658



Mintxeta ingurua oso ilun dago:

"Ordua aldatu dutenetik, berehala iluntzen du eta herriko hainbat gun e oso ilun geratzen dira. Mintxetara joaten gara ibiltzera, eta 18:30erako ez da argirik egoten. Beldurra ere ematen du bertan ibiltzeak. Eskertuko genuke inguru horretako argiztapena hobetzea".



Deba ibaiaren ubidearen zaintza eta mantenua noren ardura da? Zer maiztasunekin egiten da?

"Azken egunetan eurite handiek ekar ditzaketen ondorioak ikusi ditugu. Horrez gain, joan zen asteburuan *Diario Vasco* egunkarian, Deba ibaiak eta Sallobente errekek bat egiten duten lekua urak gainezka egiteko arrisku handikoa dela aipatzen zen. Argazkian ikusten den bezala, Maalako zubiak dituen hiru begietatik bat itxi egiten dute zuhaitz eta landareek. Jakin nahi dugu noren ardura den ibaiaren garbiketa eta zenbatean behin egiten den". BARREnetik Udalera jo du, eta hau izan da jaso dugun erantzuna: "Eskerrik asko egindako galderarengatik. Elgoibarko Udalak bere gain hartzen du ibai-ibilgura irits daitezkeen hiri-hondakinak garbitzeko ardura, eta, horretarako, alde aurretik Uraren Euskal Agentziaren (UR Agentzia) baimena eskatu behar du, lan horiek nola egin behar diren adierazteko. Bestalde, ibai-inguruneke landaredia mantentzea URA Agentziari dagokio zuzenean. Hala ere, ibaiaren inguruko eremuak egoera onean



mantentzeko eta ingurune garbi eta zaindua mantentzeko, Elgoibarko Udalakekimena hartu du esparru horretan. Horrela, Uraren Agentziarekin koordinatuta, landareria mantentzeko lanak egiten ditu beharrezkoa denean. Lan horiek antzemandako beharren arabera egiten dira, eta nabarmendu nahi dugu komunikazio zuzena eta etengabea dugula URA Agentziarekin, ibai-ingurunearen kudeaketa eraginkorra eta koordinatua bermatzeko".



"Eskerrik asko Mendaroko Udalari, trafikoari buruzko oharra zabaltzeagatik":

"Mendaroko Ikastola aurrean sortzen zen trafiko arazoari buruzko

kexa argitaratu nuen BARRENEN, eta ondoren Mendaroko Udalak oharra zabaldu du herritarren artean. Eskerrak eman nahi dizkiogu arazoaren aurrean ardura hartzeagatik".

Azaroaren 30era arte iraungo du deskontuen kanpainak

Elgoibar Bizi-Bizixa bonuen udazkeneko kanpaina martxan da azaroaren 5etik, eta hilaren 30era arte iraungo du. Epe horretan, 5 eta 60 euro artean egindako erosketetan %25eko deskontua izango dute herritarrek. Udalak 30.000 euro bideratu ditu kanpaina honetara, eta 4.000 bono kaleratu ditu. 51 establezimenduk hartu dute parte, eta bakoitzak 78 bono jaso ditu: Idama, Bizkor Bizikletak, Iza'k ile-apaindegia, Masumis, Zazpi Informatika, Decotena koltxoi denda, Farmazabal, Mara Oinetakoak, Sara jantzi denda, Astigarraga GYS Sport, Cristina Garcia estetika, Meraki, N1 Zapatillak, Fadek ile-apaindegia, Ipintza, Ongi Iturgintza, Ikus Optika, Garate jantzi



denda, Maria Urizar, G&M jantzi denda, Azkue Argazkiak, Nalai oinetakoak, Arauri, Hair's ile-apaindegia, Darama, Goiara, Txillarre, Ecenarro, Karkizano, Atelier Oihana, Uzuri Optika, Kala loradenda, Aramburu bitxitegia, Pitxintxu, Lete, Iriondo Kirolak, Lau, Henko jantzi denda, Prest tindategia, Surya belardenda, Roteta, Barrutia Optika, Lagunak Textil, Agurtzane Ile-apaindegia, Donna, Olaia Martinez estetika, Luma ile-apaindegia, Ekom Masajea, Alire estetika, Biok Dekorazioa eta Kima Bioestetika.

Odol ateratzeak egingo dituzte azaroaren 15ean, Elgoibarko jubilatuen biltokian

Odol Emailen Elkartetik jakinarazi dute gaur zortzi odol ateratzeak egingo dituztela Elgoibarren, jubilatuen biltokian, 16:30etik

aurrera. Ordua eskatzeko 623 328 408 telefono zenbakira deitu edo whatsapp idatzi behar da eguaztenetik aurrera.

Indarkeria matxistarekin lotutako testigantzak bildu nahi ditu Elgoibarko Emakume Feministen Asanbladak

Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguna da azaroaren 25a, eta horren harira, testigantzak jaso nahi ditu Elgoibarko Emakume Feministen Asanbladak, Elgoibarko errealitatea ezagutzeko. Modu anonimoan jasoko dituzte testigantzak, baina gero, herritarren artean elkarbanatuko dituzte.

Bi bide jarriko dituzte testigantzak jasotzeko: Batetik, postontzi bat jarriko dute Aita Agirreko sarreran testigantzak bertan lagatzeko, eta bestetik, Google galdetegi bat partekatuko dute Whatsapp eta sare sozialen bidez.

Eraso matxistatza hartzen dituzte besteak beste bazterkeria, irainak, neska izatearren egindako mespretxuak, baimendu gabeko musu edota igurtziak, gorputzari edota arropari buruzko komentarioak, begirada lizunak, sexu harremanak edukitzeko presioa, eraso



homofobo eta transfoboak, kontrola bikote harremanean...

Jasotako testigantza guztiak aztertu eta Elgoibarko errealitatearen berri jasotzea da helburua.

Urte bukaerarako indarrean egongo da mugatutako aparkalekua arautzeko ordenantza

Elgoibarko Udalak Denboran Mugatutako Aparkalekua (TAO) arautzeko ordenantzaren araudi berria onartu du eta orain iradokizunak jasotzeko epea zabaldu du. Posta elektronikoz bidali daitezke iradokizunak partaidetza@elgoibar.eus helbidera, edo aurrez aurre entregatu Herritarren Harretarako Zerbitzuan. Jendaurrean jartzeko epea amaitzean, araudia behin betiko onartuko dute, eta Udalak aurreikusten du ordenantza berria urtea amaitu baino lehen sartuko dela indarrean. TAO sistemak doakoa izaten jarraituko du, baina aldaketa batzuk izango dira. Berrikuntza nagusien artean, Txarridunako biribilgunean eta Uparitzaga kalearen hasieran sortu duten hamabost minutuko egonaldi laburreko gune berri bat nabarmendu behar da. Era berean, anbulatorio alboko aldapan dauden



aparkalekuak eta Ziziliongo aparkalekuaren goiko aldea ere TAO eremua izatera pasatuko dira. Iraupen luzeko zonetan (Deba kalea eta Zizilion), berriz, ordutegia da aldatu dutena: 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara ordenantza berriak jasotzen duenez. Horietan, egunean lau orduko tiketa atera ahal izango da.

27 establezimenduk egin dute bat 'Guria erabili zeinke' kanpainarekin

Gurea erabili zeinke kanpaina jarri du abian Amatau Mobila Taldeak Elgoibarko Udalarekin elkarlanean, 8 eta 16 urte bitarteko haur eta nerabeentzat. Helburua da laguntza-sare bat sortzea, adingabeek establezimenduetan telefono bat eskura izan dezaten, arrazoia edozein dela ere, dei bat egin ahal izateko. 27 establezimenduk egin dute bat ekimenarekin, eta horiek zein diren jakiteko identifikazio-pegatina bat izango dute atarian. Horiez gain, Gotzon Garate liburutegia, Inazio Bereziartua musika eta dantza eskola, Mintxeta, Gaztelekua, Ludoteka eta Olaizaga kiroldegia udal zerbitzuek ere zerbitzu hau emango dute: Ainara Barreña Hizkuntza-akademia, Marrubi, Farmazabal, Zazpi informatika, Astigarraga, Meraki ile-apaindegia, Ongi iturgintza, Amagoia txutxe denda, Maria Urizar ile-apaindegia, Txillarre, Arauri, Henko jantzi denda, Barrutia optika, Uzuri, Surya belardenda, Aranburu bitxitegia, Pitxintxu, Caramel, Lagunak koltxoi denda, Idama, Irune Arriola botika, Arrizabalaga denda, Olaia estetika, ILS Hizkuntza-akademia, Biok dekorazioak, Garitaonandia botika eta Kima bioestetika.

Zaintzari buruzko hitzaldia antolatu du Duintasunak astelehenerako



Elgoibarko Duintasuna jubilatuta eta pentsiodunen elkarteak zaintzari buruzko hitzaldia antolatu du astelehenerako. Nerea Kortajarena EH Bilduko legebiltzarkideak emango du, Kultur Etxeko hitzaldi gelan, *Zainketak: publikoak eta komunitarioak? Zaintzarako sistema publiko komunitario baterantz* izenburupean. Hitzaldian zehar, ondorengo galderei erantzuna emango die Kortajarenak, besteak beste: Denok gauza berari buruz hitz egiten ari al gara zainketei buruz ari garenean? Nola berma dezakegu zaintza komunitarioko esperientziak anekdota huts ez bihurtzea?. Era berean, plaza publikoen hazkundeari buruzko estatistikak eta zaintzak erantzun sistemiko eta komunitario bihurtzeko beharra aipatuko ditu. 18:30ean hasiko da.

Azkarateko errepidea konpontzeko sinadura bilketa hasi dute



Sallobente Ermuaran auzoko bizilagun talde bat sinadurak biltzen hasi da Azkarateko errepide zaharra eta Azkaratetik Madariaga auzora arteko errepide zatiak konpontzeko eskatzeko. GI-3321 errepidearen egoera "tamalgarria" dela azaldu dute, aspalditik dagoela hondatuta eta azken urteetan egin dituzten mantentze-lanak "hutsaren hurrengoak" izan direla salatu dute. Errepidearen egoera txarrak erabiltzaile askori eragiten diela zehaztu dute, bai gidariei eta baita oinezko zein txirrindulariei ere. Euren eskaera erakundeetara eraman dutela azaldu dute, Udalera eta Gipuzkoako Foru Aldundira, "baina inork ardura hartu nahi ez duela ikusita", sinadura bilketa hastea erabaki dute. Baserriz-baserrri joango dira sinadurak batzen, baina gainerako herritarrek ere izango dute sinatzeko aukera, IMHn eta Kala loradendan laga dituzten orrietan.

Elgoibarko Udaletik jakinarazi dute Foru Aldundiak lehentasunen artean daukala errepide hori konpontzea eta datorren urterako 300.000 euroko aurrekontu espezifiko gorde duela horretarako. Azaldu dutenez, proiektua idazketa fasean dago, urtarrilerako aurreikusitako lizitazioarekin eta maiatzerako programatutako egonkortze-obren hasierarekin. Egonkortze-lanak amaitu ondoren, zorua birgaituko dute, 2025eko udan. Horrek barne hartuko ditu hondatutako puntuetan lurzorua berritzea eta mikroglomeratu bidezko errodadura-geruza berri bat aplikatzea luzera osoan.

Azaroaren 22 eta 23ko elikagai bilketarako boluntarioak behar dira

Elgoibarko Udalak eta Elgoibarko Gurutze Gorriak herritarrak animatu dituzte azaroaren 22an eta 23an Gipuzkoako Elikagaien Bankuak egingo duen Udazkeneko Elikagai Bilketan parte hartzera. Ostiralean eta zapatuan egingo dute bilketa, eta izena ematen duten boluntarioen arabera antolatuko dituzte txandak. Elikagaiak eta bonuak jasoko dituzte aurten ere, eta boluntarioen lana izango da herritarrei horren berri ematea. Adingabeek ere parte hartu dezakete ekimenean, beti ere heldu baten ardurapean. Bilketan parte hartu nahi dutenek Herritarren Arreta Zerbitzuan eman behar dute izena (943 741 050).

Magosto Eguna antolatu du Galiza Etxeak biharko

Elgoibarko Galiza Etxeak Magosto Eguna antolatu du biharko. Ourensetik ekarritako 150 kilo gaztaina erreko dituzte, eta herritarren artean banatuko dituzte ondoren, doan. Ardoa dastatzeko aukera ere egongo da, edalontzia 2 euroan erosita. Horrez gain, Galiziako produktuak ere jarriko dituzte salgai, besteak beste, likoreak, orujoa, txorizoa, txokolatea, ezti eta ardoa. 12:00etatik 14:00etara izango da jaia, Maalako parkean.



Valentziako kaltetuentzat produktuak eramateko garraiolariak behar dira

Urriaren 29an DANAK gogor jo zuen Mediterraneoko hegoaldean eta hondamendia eragin zuen. Denboraleak kaltetutako eremuetan bizi diren herritarrei laguntzeko kanpaina egin dute aste honetan Elgoibarren eta Mendaron, eta Eibarren jarri zuten bilketa puntua. Ertzantzatik eskerrak eman dizkiete bilketan parte hartu duten herritarrei erakutsitako eskuzabaltasunagatik. Aurreikuspen guztiak gainditu dira, eta orain produktu horiek guztiak Valentziara eramateko garraiolariak behar dituzte. Kontaktuan jartzeko Eibarko Ertzaintza Etxera deitu behar da: 943 531 700. Elgoibarko Udalak 3.000 euro jarri ditu Valentziara 23.000 litro ur mineral bidaltzeko, eta Altzolako Urak enpresaren bitartez egingo du.



400.000 euroko inbertsioa egingo du Elgoibarko Udalak Sallobenteko baserriak ur sare publikora lotzeko

Udalbatzaren urriko osoko bilkuran baserrietako ur sistemari buruzko bi mozio eztabaidatu zituzten Elgoibarko Udalean. EH Bilduren mozioa izan zen lehenengoa. Mozioan jasotakoaren arabera, Elgoibarko baserrien erdia gaur egun oraindik ur sare publikora lotu gabe dago, Sallobente auzokoak gehienak, eta bi eskaera egin zizkioten Udal Gobernuari: batetik, legegintzaldi honetarako plan bat garatzea Sallobente, Arriaga Azkue eta Urruzuno auzoek ur sare publikorako sarbidea izan dezaten, eta bestetik, puntu hori 2025eko aurrekontuetan jasotzea. Mozioak ez zuen aurrera egin. Udal Gobernuak beste mozio bat aurkeztu zuen, eta hura onartu zuten. Mozio horren bidez Udal Gobernuak konpromisoa hartu du 2025ean Elgoibarko baserri auzoetako azpiegiturak hobetzeko. Esan zutenenez, Aiastia eta Idotorbeko baserri gehienak dagoeneko ur sare publikora lotuta daude, eta baita Arriaga-Urruzunoko



batzuk ere. Datozen urteetan Sallobente, Azkue, Arriaga eta Urruzunoko baserrietarako azpiegiturak hobetzeko lanak egingo dituzte. 2025eko aurrekontuetan 400.000 euro aurreikusi dituzte proiektuaren lehen faserako. Hasierako fasean Sallobente auzoko baserrietarako hornidura lanekin hasiko dira, eta 2026an Azkue auzora zabalduko dituzte lanak, Arriaga eta Urruzuno auzoetan amaitzeko.



Herri Batzarra antolatu du Elgoibarko Bilduk hilaren 13rako

Joan den irailaren 21ean hasi zuen EH Bilduk kongresu-prozesua eta Iruñean amaituko dute, 2025eko otsailaren 7an eta 8an. Ordura arte Herri Batzarrak egingo dituzte, eta Elgoibarkoa azaroaren 13an izango da Bilgunean, 18:30ean. Kongresuaren oinarritzko ponentzia Arkaitz Rodriguezek aurkeztuko du, eta aukera egongo da tesiaren gakoak partekatzeko eta eztabaidatzeko.



■ 'Txirristaka' gaztetzozko liburua aurkeztu dute Mendaron

Eusebio Mugertza 'Txirristaka' bertsolariaren (Mendaro, 1874 - Pasai San Pedro, 1955) izatea eta ibilerak batzen dituen haurrentzako 'Txirristaka' liburua aurkeztu zuten Mendaron eguaztenean, haren jaiotzaren 150. urteurreneko kultur programaren baitan. Programa beraren barruan, urriaren 25ean, Txirristaka Kantuz jaialdia ere egin zuten herritar talde batek, In Leike Kultur Elkarteak eta Mendaroko Udalak Mutrikuko, Debako, Elgoibarko eta Mendaro bertako musika eskolekin lankidetzan antolatuta.

✍️ Ainara Argoitia

A benduaren 15ean 150 urte beteko lituzke Eusebio Mugertza *Txirristakak*, Mendarok eman duen bertsolari handienak, eta urteurren hori aitzakia hartuta urte osoko kultur programa antolatu dute herritar talde batek, In Leike kultur elkarteak eta Mendaroko Udalak elkarlanean. Programa horren baitan, *Txirristaka* haur eta gaztetzozko liburua aurkeztu zuten eguaztenean, udaletxeko udalbatza-aretoan.

Andoni Egañak idatzi du liburua, Antonio Zabalak 1974an Auspoa bildumarako idatzi zuen *Mendaro Txirristaka bertsolaria* liburuan jasotako bertso-sortetan Txirristakak berak bere buruaz esandakoak oinarri hartuta, eta Ainara Azpiazu *Axpik* ilustratu du. Aurkezpenean biek hartu zuten parte eta *Axpik* libururako sortutako irudiei kantuan aritu zitzairen Egaña, itsu jantzita, Kubako repentisten antzera, segidillan. Hemen

Euskal Herrian ez hainbeste, baina Gaztelan eta munduko beste zenbait tokitan duela 200 urte ilustrazioak eta istorioak azaltzeko erabiltzen zuten modua erabili zuen Egañak liburua aurkezteko. Izan ere, hemen, Euskal Herrian, bertsolariak bertso-paperen bidez egiten zutena, munduko beste parte batzuetan itsuek egiten zuten, itsu-makilarekin lagunduta. Eta halaxe jantzita aritu zen Egaña bertsoan Eusebio Mugertza nor izan zen azaltzen.

Liburua 15 euroan jarri dute salgai eta eskualdean, momentuan, ondorengo leku hauetan eskuratu daiteke dagoeneko Elgoibarren (Pitxintxun), Eibarren (Iraolagoitia liburu dendan), Ermuan (Xiripot liburu dendan), Sorluzen

(Iratxo gozotegian) eta Mendaron (Morroskillo estankoa).

Txirristaka kantuz

Urriaren 25ean, bestalde, Txirristaka Kantuz jaialdia egin zuten, frontoian. Mutrikuko, Debako, Elgoibarko eta Mendaroko musika eskoletako 125 kidek hartu zuten parte. Andoni Egaña bertsolariak *Mendaro Txirristaka bertsolaria* liburutik apartatutako 12 bertso-sorta eta beste horrenbeste doinurentzako jantzi musikala sortu zuten musika eskoletan, eta hiruna bertso-sorta interpretatu zituzten, frontoi bete laguneren aurrean. Kronika irakurri eta argazki gehiago eta bideoa ikusteko: barren.eus ■





PENINTSULAKO GAILUR GARAIENETARA BEGIRA JARRITA DAUDE TXITXIBILALDIKOAK

Iberiar penintsulako mendi garaiak igo eta tokian tokiko kultura ezagutzeko proiektuari ekin diote Txitxibilaldiak taldeko mendizaleek. Ekainean hasi zuten proiektua eta Errioxako eta Zaragozako tontorrik handienak zapalduta, urrian bigarren irteera bat egin dute penintsulako hego-ekialdera, Alacant, Albacete, Murtzia, Jaen eta Almeriako bost mendi altuenak egitera. Datorren urterako ere beste bi irteera dituzte pentsatuta, udaberrirako bata eta udazkenerako bestea (txitxibilaldia.blogspot.com).

✍️ Ainara Argoitia

Mendian ibiltzea gustuko zutelako eta emakumeek ere aisialdirako eta kirolerako eskubidea zutela aldarrikatzeko elkartu ziren duela 42 bat urte, kirola gizonen curriculumeko kontua baino ez zenean, eta mendiz mendi dabilta geroztik munduan. Emakumeak dira taldekide guztiak eta 2016az geroztik, Txitxibilaldiak izenarekin dabilta hara-hona, 2015eko martxoan betirako galdu zuten Lourdes Zubiaurre Pujana *Txitxi* lagunaren omenez. Makina bat gailur zapaldu dituzte urte guzti hauetan, baina ez dira ase, eta beste erronka bati heldu diote aurten, Izaskun Estibaritz taldekideak xaxatuta. Espainiar estatuko gailurrik

garaiak begiz jo dituzte, probintziako bat (Ceuta, Melilla eta Chafariña uharteak aintzat hartu gabe). Ez dute epe mugarik zehaztu, pausoan-pausoan ibili zaleak direlako, baina urtean astebeteko bi irteera egitea adostu dute: udaberrian bat eta udazkenean bestea. Hala egin dute aurten. Ekainean hasi zuten proiektua, Errioxan. Hamabost lagun ziren taldean, 64 urtetik 83 urtera bitarteko hamabost emakume mendizale, eta Errioxako mendirik garaiena, San Lorenzo mendia (2.271 metro), igotzeko asmoz abiatu ziren Elgoibartik, furgonetaz. Demanda mendilerroan dago San Lorenzo eta ekainaren 17an zapaldu zuten Txitxibilaldikoek.

Irteera hartan bertan, hala ere, beste gain batzuk ere lotu zituzten, tartean Soriako bigarren tontorrik handiena dena, Muela de Urbion (2.228 metro) eta Soria eta Zaragozako garaiena den Moncayo (2.314 metro). Burgosko San Millan (2.131 metro) igotzeko asmoa ere bazuten behin haraino gerturatuta, baina eguraldi txarragatik plana aldatu behar izan zuten, eta Castilla Viguera (1.051 metro) igo zuten Errioxan, Burgosera itzultzea hurrengo baterako lagata. Han hasi zuten bidea, baina ordurako lotuta zeukan bigarren plana urrirako Izaskun Estibaritz taldeko estrategak. "Berea izan zen ideia. Mendiko plan osoa berak diseinatu du, logistika kontuetan denok jartzen dugun arren gure alea. Izaskunek baditu ezagunen batzuk erronka hau egiten ari direnak eta iruditu zitzaion egokia izan zitekeela guretzat, ez direlako zailtasun tekniko handiko mendiak", zehaztu du Rosa Matak.

Urrian osatu dute proiektuko bigarren etapa. Logistika handiagoa eskatu die honek, besteak beste hegazkinez egin dutelako Alacantara artekoa eta sei probintziatara mugitu direlako handik, lotara leku ezberdinetara erretiratuz egunero, ekaineko irteeran ez bezala: Alacant, Murtzia, Albacete, Granada, Jaen, Almeria eta Malaga. Hala ere, bost probintziatako mendi garaienak igo dituzte: Aitana (1.557 metro; Alacant), eta bide batez, Atalaya (2.083 m.; Las cabras mendigunea, Albacete); Obispo (2.014 m.; Revolcadores mendigunea, Murtzia); Magina (2.165 m.; Jaen) eta El Chullo (2.611 m.; Sierra Nevada, Almeria). "Uste baino logistika arazo gehiagorekin eta nahi baino hotz eta haize handiagorekin zenbait puntutan, baina egin nahi genuen guztia eginda itzuli gara, pozik", esan du Marijo Estibaritzek. Hamabi lagun izan dira taldean bigarren honetan, tartean bi eibartar, aspaldiko lagunak biak, urte asko direlako

Txixibilaldiak taldera batu zirela: Eibarko Klub Deportibo mendizale taldeko Mertxe Agirre eta Marilui Zendoia. Mendeurrena ospatzen ari dira aurten Eibarko Klub Deportibokoak, eta haien banderatxoa ere zabaldu dute orain azkena egin dituzten tontorretan, *Baietz 312!* ekimenarekin bat eginez.

BIGAREN ESPEDIZIOA, GORABEHERATSUA

Hasiera gogorra izan zuten urriko irteera honetan, baina ez zuten atzera egin. "Alacanteko aireportura iritsi, autoak alokatu eta mendirako bidea hasterako 15:30ak jo zizkiguten, eta hori goizean bostetarako martxan geundela", zehaztu du Rosa Matak. Mendizaleak dira, eta ondo dakite jakin lar berandu dela hori Aitanaren garaierako mendi bat igotzen hasteko, are gehiago udazkenean, eguna mozten hasia denean, baina abiatu ziren, beti ere adostuta beranduenez 18:30ean jaisten hasiko zirela,



tontorra eginda nahiz gabe. Egun argiz lortu zuten, baina, gaina egitea. Gau hartarako ostatua Cara Vaca de la Cruzen zuten hartuta (Murtzia), 200 bat kilometrorra, eta ostatura iritsi zirenerako 22:30ak bazirela gogoratu du Estibaritzek. "Telefonoz enkargatu genuen afaria. Lehertuta geunden, 04:30ak aldera esnatuta geundelako egun hartan. Oheratzerako, dena den, goizaldeko ordubatak ere jo zizkiguten. Oso gogorra egin zitzaigun eguna eta horregatik erabaki dugu hurrengo egingo ditugun irteeretan lehenengo eguna behintzat lasaiago hartzea, aireportuetan-eta beti gertatzen direlako espero ez direnak".

Goiz jaiki ziren biharamunean ere, eta "ordu prudenteago batean" irten ziren Atalaya mendirantz, goizeko zazpiretarako, "txokolatea eta txurroak gosalduta". Mendilerro berean, Albaceteko eta Murtziako mendi-tontor garaienak igo zituzten bi egunetan, Atalaia eta Obispo, hurrenez hurren. Hiru ordu pasako mendi ibilaldiak izan ziren biak.

Urriaren 17rako Jaenera pasatuta zeuden, han zutelako hurrengo erronka: Magina tontorra egitea. 2.165 metroko mendia da Magina eta egun hortakoa izan zen mendi ibilaldi luzeena, zazpi ordu ingurukoa. "Laino itsua egin zigun egun hartan. Akordatzen naiz mendian gora gindoazela basozain batzuekin egin genuela topo. Jeepean zetozen haiek beherantz eta gure parera iritsita esan ziguten: 'Badaude egun gehiago mendirako!'. Eta erantzun genien beharbada ezetz, Euskal Herritik joanak ginelako mendia egitera, 1.000 kilometroko bidea eginda. Eta erantzun ziguten: 'Euskal Herritik? Orduan segi, eguraldi txarra zer den badakizue eta'", gogoratu du Maite Txurrukak. Badute eskarmentua mendian, eta bazuten eta badute konfiantza euren buruetan. "Zuhur jokatzeko dugu beti. Helburu txikiak jarri genituen orduan ere. 'Iritsiko gara hango leporaino eta ikusiko dugu



gero zer egin' adostu genuen. Taldean hitz eginda daukagu: arrisku txikiena dagoela ikusiz gero, beti elkarrekin, erritmo ezberdinetako jendea gauden arren taldean", gehitu du ondok Estibaritzek. Kanpotik, baina, bestela ikusi izan dituzte sarri. Gertatu zitzairen Alacanten ere, Aitana tontorerra bidean. "Berandu zen mendirako, bai, baina gogoan daukat nola begiratu ziguten tontorretik behera zetozen bi mutilek, Benidormetik zuzenean hara joandakoak bagina moduan. Ohartarazi gintuzten beherakoan zegoen katebideaz, Passet de la Rabosa izenekoaz, guretzat zailtxoa izango zela iradokiz moduan. Izaskunek isildu zituen, 'halakotxeak dira ba justu gehien gustatzen zaizkigun bideak!' esanda".

Eguraldia ez zuten aldeko izan Maginan, ezta Chullon ere, Almeriako mendirik garaienean

(2.611) eta bigarren etapa honetako azken helburuan, eta pena hori badu Mari Tere Arakistainek, tontorreko ikusmiraz gozatu ezina eta bidean argazkirik egin ezina. Baina pozik itzuli dira, elkarrekin barre ugari eginda. Taldeko batek Chullora bidean, 2.500 bat metrora dagoen aterpetxean bitzakoak ekarri ditu akordura, eta lehertu dira mahai bueltako denak barrez. "Egoera surrealista asko izaten dira. Konplizitate handia daukagu gure artean, eta oso momentu onak pasatzen ditugu taldean", esan du Txurrukak. Are gehiago oraingo honetan moduan helburuak beteta itzultzen direnean. Hala, Chullotik bueltan El Morron de las tres lindes gailurrean (2.287 m.) botatako irrintzia z gogoratu da Mata.

KONPLIZITATEAK

Zaildutakoak dira mendian, eta zortedunak ere bai, egin dituzten ibili guztietan ez duelako sekula inork min handirik hartu eta ez delako taldekideen artean haserrikerik sortu. "Nekegatik eta sortu izan dira tentsio uneak, baina gauza on bat du gure lagunartek: oso ondo ezagutzen dugula elkar, errespetu handia diogula elkarri eta beti asmatzen dugula hitz eginda egoera zailak konpontzen. Hori altxor handi bat da", esan du Matak. Eta baietz diote gainerako guztiek buruarekin. Mendizaletasunak batzen ditu, baina baita kulturarekiko interesak eta gauzen alde ona ikusteko jarrera positiboak ere. "Antzerkian, euskal dantzetan, gimnasioan... gabiltzanak gaude taldean, eta kulturarekiko interes hori denok dugu. Euskaltzaleak ere bagara, eta

euskaltzaletasuna ere bada talde honen beste ezaugarri bat", gehitu du Arakistainek.

Mendira hasi zirenean baino lasaiago ere bizi dira orain, lanetik erretiroa hartuta eta etxeko zaintza-ardurak arinduta. Eta jakina, denbora gehiago ere badute, garai bateko aldean. Horregatik erabaki dute aurrerantzean urtean bi irteera egitea, bakarra beharrean. "Horregatik, eta adinean aurrera goazelako ere bai", aitortu du Estibaritzek, eta Kilimanjarora egindako espedizioaz oroitu da. "Lanean ari ginen, eta han joan ginen lana, senarrak, seme-alabak, gurasoak... lagata. Mendia gustatzen zitzaigulako eta behar den indar hori bagenuelako joan ginen".

Biak mantentzen dituzte: zaletasuna eta indarra. Ezina etorriko da, baina bien bitartean eutsi nahi diote horri, eta datorren urteko bi irteerak ere zehaztuta dituzte. Izaskunek eginda dauka aurrelana. Ekainean, Girona, Bartzelona, Cuenca, Teruel, Tarragona, Valentzia eta Castelloko tontor handienak igo nahi dituzte: Puig Pedros Gironan (2.914 m.), Costa Cabrolera Bartzelonan (2.605 m.), Mogorrita Cuencan (1.864 m.), Peñarroya Teruelen (2.028 m.), Monte Caro Tarragonan (1.440 m.), Alto de las Barracas Valentzian (1.837 m.), eta Peñagolosa Teruelen (1.815 m.), eta urrirako Galiziako lau gailur eta Palentziako bat dituzte begiz jota: Pilar Coruñan (803 m.), Mustallar Lugon (1.934 m.), Monte do Faro Pontevedran (1.181 m.) eta Peña Trevinca Ouresen (2.127 m.), eta Peña Prieta Palentzian (2.539 m.)





SUAREN ARGITAN

Urriko azken egunean ospatu zuten gau beltza, eta iluntasunean suaren argitan irten ziren kalera deabru eta arima beldurgarriak. Elgoibarren, Inazio Bereziartua musika eskolak, Udal Ludotekak eta Atxutxiamaikak antolatu zuten festa, eta argirik gabe, suaren argitan egin zuten ibilbidea. Mendaron Arno Guraso Elkarteak antolatuta hainbat ekintza egin zituzten arratsaldean eta gauerako Deabru Beltzak taldearen emanaldia lotu zuen Udalak. Halloween festa alboratu eta euskal ohiturak berreskuratzea dute helburu bi herrietan. Argazki gehiago: barren.eus

✍ Ainhoa Andonegi

📷 Asier Orbea / Jose Ramon Cabrera





'Esnearen kolorekoa' antzezlanaren taularatuko du Tanttaka konpainiak azaroaren 15ean Elgoibarren

Izen handiko aktoreak batzen ditu gaur zortzi Elgoibarko Herriko Antzokian Tanttaka konpainiak taularatuko duen *Esnearen kolorekoa* antzezlanak: Joseba Apaolaza, Miren Arrieta, Mireia Gabilondo, Aitziber Garmendia, Jon Olivares eta Jose Ramon Soroz. 19:00etan hasiko dute antzezlanaren sarrerak salgai daude herrikoantzokia.eus webgunean, hamar euroan (65 urtez gorakoentzako eta gazte txarteldunentzat 3 euroan)

Nell Leyshon idazlearen izen bereko nobela du oinarri (*The colour of milk*). Egileak berak egokitu zuen antzerkirako, eta Aizpea Goenagak ekarri du euskarara. XIX. mende amaieran dago giroa, Ingalaterrako landa inguruko baserri batean, familia analfabeto batean, eta Mary izeneko neska gazte bat du protagonista, aitaren jipoiak jaso ohi zituen neskatila bat. Familia uztera behartu eta bikarioaren etxera bidaliko dute Mary, neskame aritzeko.



Irakurtzen eta idazten jakitea du hark desiorik handiena, eta lortuko du, baina baita larrutik ordaindu ere. Generoaren eta klase gatazkaren ikuspuntutik aztertzeko asko ematen duen biografia da harena, oholztan Aitziber Garmendia aktoreak gorpuztuko duena.

Tokiko komunikabideen etorkizunerako estrategiez arituko da Jon Sarasua Elgoibarren

Tokiko informazioaren esparruan euskarazkoak nagusitzeko estrategiaz izeneko hitzaldia emango du Elgoibarren Jon Sarasua Euskararen Gogoetaguneko koordinatzaile eta euskal pentsalari ezagunak azaroaren 12an, Debabarreneko Komunikazio Taldeak eskatuta. Aita Agirre kulturaguneko hitzaldigelan izango da hitzaldia, 18:30ean.

Zer nolako ardura dute tokiko komunikabideek hizkuntza biziberritzeko prozesuan? Nola lor dezakete euskarazko tokiko komunikabideek informazio lokalaren esparruan gailentzea?. Galdera horiei eta beste batzuei erantzungo die Sarasuak.



Berak esana du komunikabideen arloa eta bereziki tokikoena dela hizkuntzaren biziberritzean jauzia emateko aukeran ikusten duen lau esparru estrategikoetako bat. Hain zuzen, baieztapen horren inguruko xehetasunak eta azalpenak ematera dator Elgoibarrera.

Dorleta Kortazarrek ipuin kontaketa saioa emango du hilaren 14an helduentzat

Ispiluak izeneko ipuin kontaketa saioa emango du Dorleta Kortazarrek Elgoibarko Gotzon Garate udal liburutegian azaroaren 14an, 19:00etan. Ispiluan beren buruari begiratu eta beste aldera gurutzatzeko ausardia izan duten emakumeen

istorioek osatzen dute *Ispiluak*. Gezurra, bortxa, mesfidantza eta beldurra gaindituz, estutzen dituzten loturetatik askatu eta zigorrak zigor, basoan aurrera egitea erabaki duten emakumeak dira guztiak.

Aranogibelesko antzinako komunalari buruzko hitzaldia antolatu dute gaurko Mendaron

Suharri kultur elkarteak eta Aranzadi Zientzia Elkartek antolatu dute hitzaldia, Mendaroko Udalaren laguntzarekin, eta Javi Castro Aranzadi Zientzia Elkarteko Etnografia Saileko kideak emango du. Kimika Zientzietan lizentziatua da Castro eta 1983an hasi zen ikerketa-lanetan. Mutriku eta Debako alderdi etno-historikoei buruzko ikerketak egin izan ditu artzain-kortetan, baserrietan, bide zaharretan, ermitetan, errotetan, karobi-labeetan eta haizeoletan. Hitzaldia udaletxeko udalbatza-aretoan izango da, gaur, hilak 8, 19:00etan. Gaztelaniaz emango du hitzaldia.

Erdi Arotik gaur arte

Elgoibarko hiribildua sortu baino urtebete lehenago hasten da antzinako komunal honen historia. Lastur haranaren eta Kilimon edo Aranerrekaren arteko goialdean kokatua dago eta

hango larreak eta urak aziendentzat aprobetxa zitzaketen bizilagunek, erabilera komuneko zelako.

Komunalak Kilimon haranaren iparraldea mugatzen zuen, Juan Lopez de Gamboa Olasoko jaunaren hegoaldea nagusi zen lursailekin. Lehenago, 1342. urte inguruan datatutako kontratu zahar baten arabera, bi alderdien artean akordio bat zuten, baina ez zen bete, eta gatazka handiak sortu ziren. Gatazka horien ondorioz, Ganboatarren aldekoak Deban sartu ziren gerra garaian, eta Irarrazabalgo burua eta beste bizilagun batzuk Olasoko dorrera eraman zituzten preso. Herri barruan artzain-kortak zeuden, eta etxalde bat ere aipatzen da bere etxearekin: Etxabe. Garai horretakoak dira, halaber, Bederatzi Iturriko iturburuak, gaur egun Tantortakoa ere badena. 1472an konkordia berri bat idatzi zuten komunala aprobetxatzeko, eta probintziako Batzar Nagusiek parte hartu zuten horretan. Gorabehera historiko askoren ondorioz, herriaren zati handi bat besterenduz eta salduz joan zen, hedadura asko murriztuz eta baserri berriak sortuz. Beraz, orain hasieran zenaren % 7,5 baino ez da geratzen.

Xiberoako ikastolen aldeko saskiak salduko ditu Elgoibarko Izarrak

Urtero moduan, Xiberoako ikastolen aldeko saskiak salduko ditu Elgoibarko Izarrak. Hiru saski daude aukeran: Pettarra 50 euroan (ahate gibel berrosatua, ezitia, bixkotx artisauak, kiloko ardi gazta eta pastak); Arbaila 57 euroan (ezitia, bixkotx artisauak, kilo erdiko bi ardi gazta, bixkotx gatzatuak, erreximenta, pastak eta tisana) eta Basabürüa 68 euroan (xerriki pateaa, bixkotx artisauak, ardi gazta

kiloa, xahalki axoa, lukainka idorra eta pastak).

Eskariak egiteko bi bide zabaldu ditu Elgoibarko Izarrak: posta elektronikoa (elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus) eta telefonoa (943 741 626). Azaroaren 22a arteko epea eman dute horretarako. Kanpainaren eta saskien inguruko informazio gehiago behar duenak, berriz, ikaskoli.eus webgunean topa dezake.

'Kanpora sartzen' antzerkia emango dute azaroaren 15ean, Mendaron

Xabin Fernandez aktoreak berak lehen pertsonan kontatutako istorioa jasotzen du *Kanpora sartzen* antzezlanak, eta azaroaren 15ean (barikua) Mendaroko San Agustin kulturgunean ikusteko aukera izango da, 22:00etatik aurrera. Sarrerak Morroskillo dendan jarri dituzte salgai, 5 euroan. Fernandezi giza-immunoeskasiaren birusa (GIB) detektatu zioten boluntario gisa odola ematera joan zen batean, eta egun hartan, dena aldatu zen haren bizitzan. Depresioak eta



antsietateak jota pasatu zituen hamar urte, harik eta bere esperientzia kontatzea erabaki zuen arte.

'Sex sua' musikala ikusteko aukera izango da domekan, Elgoibarren

Sex Sua musikala izango da domekan Elgoibarren (Aita Agirre kulturegunean, 12:30ean). 2022ko maiatzean estreinatu zuen obra Andoni Mutiloak (Hernani, 1976) eta bigarren aldiz dator Elgoibarrera. Ligatzeko aplikazioen ondorioz, gure gizartean sortzen ari diren harreman mota berriei buruzko hausnarketa egiten du Mutiloak oholztan. Horrez gain, LGBTI+ kolektiboaren aldeko aldarrikapena ere bada Sex Sua, genero eta sexu-joera ezberdinen aldeko mezua ere zabaltzen duelako. Formatu txikiko obra da, aktore bakarra aritzen delako jendaurrean,



Mutiloa bera. Bi pertsonaia intepretatuko ditu, baina: Hiruki eta Imanol. Hiruki pertsonaia atipikoa da, ligatzeko aplikazioetan ez galtzeko gida sortu duena. Autoamodioaren apologia egiten du, eta ohartarazten du min handia hartu dezakeela aplikazioen zurrunbiloan sartzen denak. Aplikazio horiek probatutakoa da, bestetik, Imanol. Min ere hartu izan du haietan, baina hala ere, gustuko du mundu hori eta geratzeko erabakia hartua du.

Luki Maidagan Aierdiren artelanak ikusgai daude Elgoibarko Kultur Etxean



Maidagan-Aierdi familiak iaz hil zen Luki Maidagan Aierdiren artelanekin osatutako erakusketa antolatu du Elgoibarren. Badu berezitasun bat erakusketak, dohaintza baten truke eskuratu ahal izango direlako artelanak eta batutako dirua ongintzako erakundeei emango dietelako. "Lukiren pentsamendua eta konpromisoa halakoxea zelako" bihurtu du erakusketa solidarioa haren familiak. Astelehenean zabaldu zuten erakusketa, Elgoibarko Kultur Etxeko erakusketa-gelan, eta hilaren 16ra arte egongo da ikusgai, astelehenetik zapatara, 18:30etik 20:30era.

Galiziako baserri auzoetako medikuak omentzeko eskultura egin du Arturo Andradek



Arturo Andrade eskultoreak Galiziako baserri auzoetako medikuak omentzeko eskultura egin du, eta Lazako (Ourense) plazan jarri dute. Markinako marmol beltza erabili du eskultura egiteko. 2.000 kilo pisatzen ditu, eta 1,50 metroko altuera dauka. Gabardina jantzita, esku batean mediku maletatxoa daraman eta beste eskuarekin kapelari eusten dion medikua irudikatu du. Uztailean egin zion enkargua Galiziako Medikuen Elkarteak. Bospasei urte zeramatzan eskultorean tamaina handiko lanik egin gabe, baina lan interesgarria iruditu zitzaion. Allarizeko etxean harrizko bi bloke handi zituen, eta haietako bat aukeratu zuten arduradunek obra egiteko. Urriaren 26an inauguratu zuten.

Rockalean, Akerbeltz eta Idoia Azurmendi etorriko dira Elgoibarrera Gastrorock astera

Aizu Gastrorock astea antolatu du Aizuk!, Elgoibarko Ostalarien elkarteak, datorren asterako. Hirugarren edizioa izango da aurtengoa eta rockak garrantzi handia hartuko du egitarauan. Eguenean, azaroaren 14an, hasiko da aste gastronomikoa Aizu! elkarteko tabernetan egingo duten pintxo potearekin: Sigma, Iturri, Jai-Alai, Tantaka, Gabi, Aterpe, KingKong, Celia, Ilunpe, Malape, Txarriduna, Mintxeta, Gran Siglo, Txarriduna hotela eta Pilon. Azaroaren 15erako (barikua), berriz, Rockalean taldearen kalejira (20:00-22:00) eta Akerbeltz taldearen kontzertua iragarri dituzte (Maalan, 22:00etatik 01:00etara). Ezagunak dira biak bietara ere Elgoibarren. Rockalean taldekoak Txiki Egunean etorri izan dira Elgoibarrera eta iaizko aste gastronomikoan



ere izan ziren, eta Akerbeltz taldekoek, berriz, aurtengo sanbartolomeetan jo zuten, Gazteen Egunean, Maalan.

Zapaturako ere antzeko plana egin dute. Iluntzean kalejira, eta gauean, kontzertua. Patxangoi elektrotzaranga elgoibartarrak izango du iluntze partea girotzeko ardura (19:00-21:00), eta gauean, Idoia Azurmendik kontzertua emango du, Kalegoen plazan, taldea lagun duela. 22:30ean hasiko da kontzertua. Igandean, berriz, Niala magoa tabernaz taberna ibiliko da 12:00etatik 15:00etarako tartean, magia jokoak egiten.

Poltsikoko hiztegi eleanitza argitaratu dute Debabarrenako lau udalek

Poltsikorako hiztegi eleanitza sortu dute Elgoibarko, Eibarko, Soralezeko eta Debako udalek elkarlanean. Jakinarazi dutenez, euskararen erabilera bultzatzeko eta herriotan bizi diren hizkuntza komunitateen integrazioa errazteko sortu dute poltsikoko hiztegia. Ohiko 200 berba eta esamolde baino gehiago jaso dituzte hiztegian, bederatziz hizkuntzatara itzuliak: euskara, gaztelania,

ingeleza, frantsesa, portugesa, arabiera (ahoskera gidarekin), urdu (ahoskera gidarekin), wolof eta errumaniera. Ataletan banatuta dago hiztegia. Helburua, euskararen presentzia indartzea ez ezik, beste hizkuntza batzuk hitz egiten dituztenei adierazpen arruntenak ezagutzen laguntzea ere badela jakinarazi dute, bizikidetzeta eta elkar ulertzea bultzatzeko.



Herri Eskolako patioan alboko itxiturak jarri dituzte

Uztailean hasi zituzten Herri Eskolako kanpoko patioa alboetatik ixteko lanak, eta Udaletik jakinarazi dute amaitu dituztela. Eskola-instalazioak hobetzeko eta urte guztian erabili ahal izateko eguraldiari begira egon gabe. 190.553,21 euroko aurrekontua izan du. Herri Eskolaren patioko estalkia 2010ean eraiki zuten.

C.D. Elgoibarko ehun bat jokalaria ohi elkartu dira Sergio Gonzalez 'Kuki' omentzeko

Erretiroa hartu eta gero, omenaldi ugari jasotzen arida Sergio Gonzalez *Kuki*, 45 urtez C.D. Elgoibarko material arduradun izan dena. Ezusteko omenaldia egin zioten uztailean eta klubaren aitortza ere jaso zuen irailean, Mintxetan egin zuten ekitaldian. Joan den urriaren 26an, berriz, azken 40 urteetan Haundiko jokalaria izandako omenaldia jaso zuen. Omen jardunaldirako sortu zuten zapia lepoan jarri ostean, Sigma jatetxean bazkaldu zuten. Jokalari ohiez gainera, klubeko

entrenatzaileak eta zuzendaritzan ibilitakoak ere batu ziren omenaldi bazkarira, eta baita gaur egungo presidentea ere. Azaldu dutenez, futbol kontuak eta elkarrekin bitzako pasadizoak izan



zituzten solasgai bazkaritan. Aurrekoa dantzatu eta bertsoak kantatu zizkieten Kukiri eta Lehen Mailako futbol taldeen lau kamiseta ere oparitu zizkieten.

Futbolari buruzko mahai-ingurua antolatu du Jo Ta Sua martitzenerako

Jo Ta Sua taldearen 25. urteurrenaren harira, Realeko jokalaria ohiekin mahai-ingurua antolatu du realzaleen lagunarteak. Markel Bergara eta Imanol Agirretxe gonbidatu dituzte mahaira eta baita Yolanda Mateos ere. Mateos ez zen Realean aritu, baina ibilbide oparoa egin zuen futbolean, Eibartarrak, Levante edo Sabadell taldeetan jokatzear

gainera Euskadiko eta Espainiako selekzioetan ere jokatu zuelako. C.D. Elgoibarko Ohorezko Kadete mailan diharduen taldeko entrenatzailea da



egun. Jon Gurrutxaga izango da mahai-inguruko moderatzailea. Musika eskolako auditoriumean izango da, martitzenean, 19:00etan.

Hodei Ezpeleta Euskal Herriko txapeldunorde, bigarren urtez jarraian

Gasteizko Iradier Arenan jokatu zuten urriaren 27an Euskal Herriko Aizkora Txapelketa Nagusiko finala, eta sei aizkolari aritu ziren lehian: Hodei Ezpeleta (2021eko eta 2022ko txapelduna), Julen Gabirondo, Jokin Urretabizkaia *Basozabal*, Joxean Etxeberria, Andoni Iruretagoiena *Izeta VI.a* eta Iker Vicente (2019ko eta 203ko txapelduna). Ohi legez, aizkolariek Euskal Herriko Txapelketan osatuko zituzten urteko lanik mardulenak, federazioaren lehiari dagokionez bederen: launa kana erdiko (54 ontzako enborrak dira), 60 ontzako eta oinbiko (72 ontzakoak) moztu zituzten.

Iker Vicente nagusitasun handiz gailendu zen eta hirugarren txapela eskuratu zuen. Iaz baino ia sei minutu gutxiago behar izan zituen lanak amaitzeko eta final bateko bere markarik



onena egin zuen 35 minutu eta 39 segundoko denborarekin. Txapelketako marka sei alditan txapeldun izandako Angel Arrospidek egin zuen 1993ko finalean: 29:57. Finalean aritu ziren gainerako aizkolarien arteko lehia estua izango zela esana zuten protagonistek eurek, kanporaketan ikusi baitzuten Vicente kenduta besteak minutu baten barruan sartu zirela. Hodei Ezpeleta izan zen horietan onena, 40:09ko denborarekin. Basozabal sailkatu zen hirugarren postuan (41:02).



Europako Txapelketarako hasierako zerrendan dago June Loidi

Espainiako selekzioko hautatzaile Ambros Martinek 35 jokalariz osatutako hasierako zerrenda osatu du, eta hortik aukeratu ditu Emakumezkoen Europako Eskubaloi Txapelketa jokatu duten hemezortzi jokalaria. Zerrenda horretan June Loidi da ezker hegaleko postuan jokatzeko aukeratuetakoa bat. Bera Bera laga eta gero Xixongo La Calzada taldean jokatzen ari da elgoibartarra, eta Espainiako selekzioaren deia jaso du berritoki. Emakumezkoen Europako Eskubaloi Txapelketa Hungarian, Suitzan eta Austrian jokatu dute azaroaren 28tik abenduaren 15era.

New Yorkeko maratoian parte hartu du Miren Gurrutxagak

Munduko maratoi ezagunetarikoa da New York hirian egiten dutena, ikonikoa. Domekan jokatu zuten eta 55.646 lagunek lortu zuten helmugara iristea, inoizko kopururik handiena. 42 kilometroko proba bukatzea lortu zutenen artean dago Miren Gurrutxaga Konde elgoibartarra. Londresen bizi da aspaldiko urteetan, baina aspalditik zuen New Yorkeko maratoia egiteko gogoia, eta pozik da han bizitako esperientziarekin. 3:51:32ko denboran bukatu zuen proba.



Aurten 282 lagun aritu dira 'Elgoibar Sasoian' programan

Elgoibarko Udaleko Gizarte Ongizate Sailak eta Udal Kirol Patronatuak *Elgoibar Sasoian* programaren balorazioa egin dute ikasturte berriaren atarian. 2018an martxan jarri zutenetik urtez urte hazi egin den programa dela nabarmendu dute eta azken ikasturtean 282 herritar batu direla programaren baitan antolatutako ekimen desberdinetara. Hiru arlotan banatuta dago egitasmoa eta bakoitzaren balorazioa egin dute. Batetik, Jarduera Fisikora Bideratzeko Zerbitzua (SOAF) dago. Aholkularitza emateko eta bizitza aktiboago batera bideratzea helburu duen orientazio zerbitzuak 92 erabiltzaile eduki ditu 2024an: 75 emakume eta 17 gizon, 60 eta 89 urte bitartekoak. Orientazio zerbitzura joan diren 92 pertsonetatik 67k sedentarismoa uztea lortu dutela adierazi diete, eta jarduera fisikoa euren eguneroko bizimoduaren parte dela orain, besteak beste, gimnasia, K-stretch edo igeriketa saioetara joaten baitira, eta Mintxetako muskulazio gelako erabiltzaileak ere badirelako hainbat lagun. Gainera, % 72k jarduera fisiko erregularren batean parte hartzen jarraitzen dutela jakinarazi diete. Bestetik, Jarduera fisikoaren adarrean 137 erabiltzaile aritu dira,



guztiak 60 urtetik gorakoak; horietatik 113 emakumeak eta 24 gizonak. Saioak Olaizaga kiroldegian eta Mintxetan egiten dituzte. Begirale baten gidaritzapean aritzen dira eta hainbat ordutegi dituzte aukeran. Taldeetan egiteko jarduerak egiten dituzte eta 60 urtetik gorakoei bizimodu aktiboagoa izateko aukera eskaintzea da helburua. Azkenik, Zaintza Emozionalaren adarrean parte hartu duten lagunak psikologo baten gidaritzapean aritu dira. Astean bi saio egin dituzte, asteartean, 09:30ean eta 11:00etan. Horieta 53 lagun aritu dira; 46 emakume eta zazpi gizon. Saioak Gizarte Zerbitzuen Sailaren eta Elgoibarko Erretiratuen Etxearen arteko "lankidetzeta estuan" antolatzen dituzte.

Giro onean joan zen Mendaroko erronka herrikoia



Hiru laguneko hemezortzi talde lehiatu ziren Mendaron urriaren 26an jokatu zuten herri-erronkan, guztira 54 lagun, iaz beste. Eta aurreko edizioetan bezala, handia izan zen erronkak sortu zuten ikusmina. Herriko Enparantzan hasi eta Gaintxipia tontorrera arteko bidea osatu zuten parte-hartzaileek, bidean bi errelebo emanda.

Talde bakoitzean hiru lagun. Ander Gorostegi, Manex Rey eta Ander Ariznabarreta osatutako hirukoa izan zen hiru kilometroko igoera osatzen azkarrena, 31:35ko denboran. Ia bi minutuko aldea atera zioten bigarren taldeari, Nagore Urkizak, Mikel Larrinagak eta Iraitz Ferreirak osatutakoa.

60 pilotarirekin hasi du denboraldia Lagunak Pilota Eskolak



Lagunak Pilota Eskolak denboraldi honetarako osatu duen taldea aurkeztu du. Iaz berreskuratu zuten Pilota Eskola hazi egin da aurten eta 31 pilotari izatetik 50 izatera igaro dira. 2012 eta 2016. urteen artean jaiotako LH1 eta LH2ko pilotari gaztetxoek osatzen dute pilotarien harrobia. Federatuta, berriz, hamar palista

arituko dira aurten Lagunak taldea ordezkatzuz. Presidente karguan Aitor Berguak jarraituko duen arren, berriro egin dute zuzendaritza taldea. Oihana Apellaniz izango da zuzendariordea, Rebeca Esteban idazkaria, Hector Garrido diruzaina eta Ander Zubia, Gorka Cebrian eta Alex Bergua bokalak.

Boluntarioak eskatu dituzte Karakateko Igoera antolatzeko



Azaroaren 16an, zapatua, jokatu da Karakateko Igoera mendi lasterketaren 30. ekitaldia. Morkaiko mendi taldetik jakinarazi dute boluntarioak behar dituztela lasterketa antolatu ahal izateko. Kalegoen plazatik Agerre baserri parera arteko bidean dauden bidegurutzeak zaintzeko prest dauden boluntarioak behar dituzte, bereziki. Laguntzeko prest daudenek morkaiko@morkaiko.eus helbidera bidali behar dituzte euren datuak: izen-abizenak eta telefono zenbakia.





Mikel Leon
inmomikel@gmail.com

747 459 343
San Ignazio kalea 1,
20870 Elgoibar

 *@mikel_inmobiliaria*

ETXEA SALGAI (EGUZKITSUA): San Frantzisko kalean, **195.000€**




LANA**Eskaerak**

Lan bila nabil. Esperientzia handia daukat garraiolari lanetan (27 urte). **616 828 320**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia handia daukat. Etxeko langile moduan edo orduka jarduteko prest. **632 708 954**

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan edo orduka. Titulo soziosanitarioa daukat. Erizaina naiz eta esperientzia daukat. **643 505 662**

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan edo orduka. **643 505 827**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Soziosanitario titulua daukat. **614 114 360**

Adinekoak zaintzen, ospitalean zaintza lanak egiten nahiz lokalak garbitzen egingo nuke lan. **643 097 599**

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan. Erizain laguntzaile titulua daukat eta esperientzia handia. Astelehenetik ostiralera, 8 orduko lan baten bila nabil. **628 839 248**

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan, orduka. Garbiketa lanetan edo sukaldari laguntzaile moduan aritzeko ere prest. **624 561 990**

Asteburuetan adinekoak zaintzeko prest nago, barikutik domekara. Titulo soziosanitarioa daukat eta paperak legez. **631 020 169**

Lan bila nabil. Esperientzia handia daukat baserriko lanetan, nagusiak zaintzen eta garbiketa lanetan. Etxeko langile moduan jarduteko prest. **632 721 342**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Etxeko langile moduan zein orduka edo behar denerako prestutasunarekin. Esperientzia daukat. **632 708 954**

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan. Asteburuetan ere bai. Esperientzia handia daukat eta erreferentzia ezin hobekak eskaini ditzaket. Berehala hasteko prest. **632 711 473**

Eskaintzak

Emakumea behar da etxeko lanak egiteko. Lan kontratua eskaintzen da, astelehenetik ostiralera. Autoa eta ziurtagiri soziosanitarioak derrigorrezkoak dira. **688 670 009**

BESTELAKOAK

Giltzak aurkitu ditugu Basarte eta kiroldegi artean. Udaltzaingoa laga ditugu.

  <p>ROSA Mª PINTADO</p> <p><i>Etxaldean Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcalá de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p>660 969 679 rosapf@telefonica.net</p>	<p>Gure komunitatean hodi nagusi bat ezinbestean konpondu behar izan dute. Horretarako, etxebizitza batean, sukaldeko altzariak desmuntatu eta horma bateko azulejuak apurtu dituzte. Gainera, azuleju berdinak ez dituztenez aurkitu sukalde guztiko azulejuak aldatu behar izan dituzte. Jakin nahi nuke ea komunitateak ordaindu behar dituen etxe horretako sukaldean hodiaren konponketak eragindako kalte guztiak. Izan ere, egungo sukaldearen zati hori jatorrian bainugela batekoa zen eta jabeak orain dela urte batzuk egindako obra baten ondorioz sukaldean integratu zuten.</p> <p>Berez komunitateak ordaindu beharko litzuke konponketak egitean etxetxabearen sukaldean sortutako kalte eta galera guztiak, nahiz eta obra batzuk egin ondoren, orain sukaldearen zatia dena jatorrian bainugela izan, lan horiek bermatuta baitaude. Kontuan hartu behar da legearen arabera jabe guztiak onartu behar dutela beraien etxe edo lokalean eraikinarekin zerbitzuak eskatutako konponketa bat egitea beti ere komunitateak kalteordainak emateko eskubidearekin. Legeak ez du zehazten ordaindu beharreko kalteei buruzko modulaziorik.</p> <p>AHOLKUA: Oro har eta salbuespenik ezean, egindako kalte eta konponketa guztiak hartzen dira kontuan, besteak beste itxurari dagokion kalteak.</p> <p>GOAR AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p>
--	--



Argazkiak eguzten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira **BARRENEKO** bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo **688 655 658** bidalita.



Zorionak, **Teresa Ines!** Ilargiraino eta buelta maite zaitugu, infinito aldiz. Jarraitu zaren modukoa izaten. Zorionak eta 9 muxu erraldoi!



Zorionak, **Nile** eta **Luma!** Jarraitu aurrerantzean ere alaitasun horrekin! Asko maite zaituztegu.



Zorionak, **Lur!** Asteazkenean zure lehen urtebetetzea ospatu zenuen. Besarkada handi bat, familia osoaren partez. Ikaragarri maite zaitugu!



Zorionak, **Valle** eta **Diego**, zuen 4. eta 1. urtebetetzeetan. Primeran pasatu genuen familiakoen eta lagunen artean. Asko maite zaituztegu! Patxo handi handi bat.



Zorionak, **Maialen!** Zure eguna ondo pasatuko zenuela espero dugu! Muxu handi bat, etxeko guztion partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€.
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO
BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarreko agurra: 3,50€.
Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.



KONTSULTATEGIA

Hortz-inplanteen onurak

1. Irtenbide iraunkorra

Hortz-inplanteak bizitza osoan irateko daude diseinatuta, baina beti ere, jakina, ondo zaintzen baldin badira eta inplantearen inguruan gaixotasunik garatzen ez bada. Galdutako hortz-haginenezako soluzio iraunkor eta finkoa eskaintzen dute.

2. Funtzionaltasun naturala

Lehen bezala murtxikatuko duzu berriro. Hortz-sustraien funtzioa erreproduzitzen dute inplanteek, murtxikatzean indarra hortz naturalen antzera eginez.

3. Kontserbazio naturala.

Hortz bat galtzeak askotan hezurra birxurgatzea eragiten du. Hortz-inplanteek prozesu horri aurrea hartzen diote.

4. Hobekuntza estetikoa

Hortz-inplanteek, funtzioa berrezartzeaz gain, hortz natural gisa ikusten eta sentitzen den soluzio estetiko bat ere eskaintzen dute.



ALDAZ HORTZ KLINIKA
San Bartolome, 22 - 20870 Elgoibar
iyd@dentalaldaz.com
943 366 377

8 BARIKUA

10:00 Bisita gidatua. Jubilatuen Biltokiak antolatuta, Elgoibarko zuhaitzak ezagutzeko bisita gidatua. Andoni Segundok gidatuko du saioa. Jubilatuen Biltokitik abiatuko dira.

19:00 Hitzaldia: 'Aranogibealeko antzinako komunala. Elementu historiko-etnografikoak Mendaron'. Javi Castro Aranzadiko Etnografia Saileko kideak emango du. Mendaroko udaletxeko udalbatza-aretoan.

21:00 Udazkeneko mendi emanaldia. Morkaikok antolatuta, Herriko Antzokian.

9 ZAPATUA

10:30 Trenez txangoa Mufomi museora eta bisita. Altzolako tren geltokitik abiatuko dira. Altzolako auzo elkarteak antolatu du. Bueltan mokadutxoa egingo dute lokalean. Izena emateko: 635 753 447

11:30 Magosto jaia. Galiza Etxeak antolatuta, Maalako parkean.

10 DOMEKA

12:30 Antzerki musikala: 'Sex sua'. Andoni Mutiloak aurkeztuko du. Aita Agirre kulturgunean. Doan.

18:00 Dantzaldia. Jubilatuen Biltokian.

11 ASTELEHENA

18:30 Hitzaldia: 'Zainketak: publikoak eta komunitarioak. Zaintzarako sistema publiko komunitario baterantz ibiliz. Gaurgeroak antolatuta, Nerea Kortajarena EH Bilduko legebiltzarkideak emango du. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

12 MARTITZENA

17:00 'Paperezko hegoak' irakurketa kluba. Mariasun Landaren 'Iholdi' ipuina landuko dute.

18:30 Hitzaldia: 'Tokiko informazioaren esparruan euskarazkoak nagusitzearen estrategiaz'. Jon Sarasuak emango du. Aita Agirre kulturguneko areto nagusian.

19:30 Mahai-ingurua, Realeko jokalaria ohiekin. Jo Ta Sua taldeak antolatuta, Musika Eskolako auditoriumean.

13 EGUAZTENA

19:00 Udazkeneko mendi emanaldia: Zikloalpinismoa Bolivian. Iñigo Unanuek eta Kattalin de Pedrok azalduko dute beraien esperientzia. Morkaikok antolatuta, Aita Agirre kulturguneko areto nagusian.

14 EGUENA

19:00 Ipuin-kontaketa saioa, helduentzako: 'Ispiluak'. Dorleta Kortazarrek emango du. Gotzon Garate Udal Liburutegian.

15 BARIKUA

16:30 Odol ateratzea. Elgoibarko Jubilatuen Biltokian. Txanda hartzeko: 623 328 408

19:00 Antzerkia: 'Esnearen kolorekoa'. Herriko Antzokian.

22:00 Antzerkia: 'Kanpora sartzen'. San Agustin kulturgunean. Sarrerak salgai Morroskillo dendan, 5 euroan.

AIZU! GASTROROCK ASTEA

14 EGUENA

19:00 Pintxo poteoa. Bonoak zozkatuko dituzte.

15 BARIKUA

20:00 Kalejira: Rockalean taldearekin.

22:00 Kontzertua: Akerbeltz taldearekin, Maalako parkean.

16 ZAPATUA

20:00 Kalejira: Patxangoi elektrotxarangarekin.

22:30 Kontzertua: Idoia Asurmendi. Kalegoen plazan.

17 DOMEKA

12:00 - 15:00 Magia ikuskizuna tabernetan, Niala magoarekin.

22:30 Kontzertua: Idoia Asurmendi. Kalegoen plazan.

Zinea (Herriko Antzokian)



'La habitación de al lado'

9 zapatua: 19:00 / 22:15

10 domeka: 19:00

11 astelehena: 21:00

'Crossing'

(Ongarri zinekluba. VOSE)

13 eguaztena: 21:00

'10 vidas'

10 domeka: 16:30

**2024ko
botika
ordutegiak:**

09:00-13:00 / 16:00-20:00
GUARDIAK:
Egunez: 09:00-22:00
Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

AZAROA

8 BARIKUA	■ Soto
9 ZAPATUA	Garitaonandia
10 DOMEKA	Garitaonandia
11 ASTELEHENA	Arriola
12 MARTITZENA	■ Fernandez
13 EGUAZTENA	Yudego
14 EGUENA	■ Oruesagasti
15 BARIKUA	Barrenetxea

2024 urte guztian, gauzez
Lekunberri Alberdi, Mikel Isasi, 31 (Eibar)
943 204 230

■ Fernandez:	■ Soto:	■ Oruesagasti:
Herriko	Rekalde, 1	Kalebarren, 9
Enparantza,4	(Soraluze)	(Soraluze)
Garagartza	943 751 638	943 751 384
(Mendaro)		
943 756 142		



San Roke kalea, 20
Elgoibar

**TEMPUR ORIGINAL BURKOA OPARI,
TEMPUR FORM
KOLTZOI BAT EROSTEAGATIK.
(IKUSI BALDINTZAK)***

943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com

TEMPUR

* TEMPUR, el único original del mundo para el descanso. Después de 100 años, TEMPUR FORMA sigue innovando en el mundo de los colchones. TEMPUR FORMA ofrece un descanso único y cómodo. TEMPUR FORMA ofrece un descanso único y cómodo. TEMPUR FORMA ofrece un descanso único y cómodo.

**TEMPUR
FORM
KOLTZOIA**





Aste honetako erretratu zaharra herritar batek ekarri du BARRENEKO erredakziora. 1963ko argazkia da, Pilar ikastetxean aterata dago. Erretratuan ageri diren mutilak Batxilergoko lehenengo maila egiten ari ziren. Gogora ditzagun zeintzuk diren gazte horiek:

Atzeko ilaran, ezkerretik eskumara: Jose Mari Egaña (†), Angel Garate, Conrado Sanmillan (†), Miguel Angel Quintas (†), Larreategi, Julian Juaristi, Jose Araujo, Jose Luis Soraluze (†), Jose Ramon Osoro eta Eduardo Isidro.

Bigarrenko ilaran: Enrike Iriondo (†), Valentin Hidalgo, Jose Etxaniz, Julian Granados, Jose Antonio Zubiaurre (†), Pablo Gonzalez, Luis Mari Agirregomezkorta (†), Jesus Mari Garate, Jon Arrieta eta Jose Mari Beneitez.

Lehenengo ilaran: Fernando Jauregizar, Jose Luis Arrieta, Jose Mari Arriaga (†), Txomin Mujika, Jose Ignacio Jauregi, Pedro Juaristi, Juan Barrenetxea, Jose Ramon Ezenarro, Iñaki Amesti (†), Aser Martinez eta Jose Mari Barrenetxea (†).



I.URTEURRENA

Ramon Etxaniz Elorza

2023ko azaroaren 13an hil zen, 101 urte zituela.

Zure irribarre goxoa eta maitasuna betiko gurekin.

Etxekoak






Eskertzak eta urteurrenak
Barren asteakarian eta barren.eus webgunean.




943 743 704 / 943 744 112
688 769 657
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk



Betirako gure bihotzetan



Maria Consolacion Marin Saiz
"Consu"
2024ko azaroaren 1ean hil zen, 66 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak.
Maitasunez, beti gure bihotzetan.
Etxekoak



Angel Oñederra Elortegi
"Zabaleta"
2024ko urriaren 28an hil zen, 90 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu
jasotako doluminak, bai eta
hileta elizkizunetara agertu izana ere.
**Izan zarena,
erakutsi duzun kemena,
gure artean geldituko da
zugandik jasotako dena.**
Etxekoak



G R E M I O N E N G I D A



PINTURA

BIOK
dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552
606 431 120

biok@biokdekorazioa.com

LEIHOAK

ODRI
ATEAK ETA LEIHOAK

Aluminio eta PVC aroztegia

Mota guztietako leihoak; salmenta eta konponketak
Ataak, leihoak, pertsianak, barandilak,
eltro-sareak eta toloak jarrizen ditugu.

662 234 609

odri@leioak@gmail.com
Sagar Errika Kalea 2, 20950 JORRALIZE

AROZTEGIA

BIENA, S.L.
AROZTEGIA

Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.biena.eus
info@biena.eus

ITURGINTZA

PAGOAGA S.A.

BULEGOA ETA ERAKUSKETA

Pedro Migel Urzuzano, 8
943 740 512
fax: 943 743 565
bienda@pagoagasa.com
www.pagoagasa.com

BILTEGIA
San Antolin, 13 - ELGOIBAR
taller@pagoagasa.com
943 740 279

**IZURRIEN KONTRAKO
TRATAMENDUAK**

PLAGANATURA

Cuidando lo Salud Ambiental

618 198 760

ivan@plaganatura.eus
www.plaganatura.eus

AROZTEGIA

iraolagoitia

aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutuz-gain industrialdea, 9
20850 Mendara
943 756 112
636 497 485

www.iraolagoitia.com

ITURGINTZA

SANTANA

Igor Santana
ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea, 17, behea
Elgoibar
943 740 530 / 605 714 905
santanaiturgintza@gmail.com

KONPONKETAK

LODOSO KONPONKETAK

- ✓ Leihoak
- ✓ Pertsianak
- ✓ Arozzeria metalikoa
- ✓ PVC arozzeria
- ✓ Eltro-sareak

Errosario kalea, 13, behea
lodosokonponketak@gmail.com

943 247 659
617 585 330

AROZTEGIA

IMAR
AROZTEGIA

Olaso industrialdea, 17 behea
943 531 471
609 054 978
carpinteriaimar@hotmail.com
 @carpinteria_imar

Gidan agertzearen onurak!

943 743 704
688 769 657

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

Alta Agirre Kulturgunea, 3. 3. ezk
20870 ELGOIBAR

23,82€
hilean

12
aldiz urtean

4.700
ale astero

23,82 Eren truke, hileru, zure enpresaren datuak eta irudia erakutsiko ditugu BARREN astekarian.

BARREN astekaria da Elgoibar eta Mendaron erakusleleho ikusiarena.

4.700 ale banatzen ditugu Elgoibarren eta Mendaron DOAN.

Eman bultzada euskarari eta lagundu gure proiektua finantzatzen.